

## EUZKERA BATASUNETZAZ

---

Euzkeldunek, Euskeltzaindijaren aginduz erabagi biar dan ezketiño «Euzkera batasune» gustijon asmo bixije dälako, arazu gatxa ta ibili-nabil bada be, labur azalduko dot neure eretxije gai bitan.

### I.º Zetzaz ixan biar dan

Geure Euzkera urukutunagaz jatzoten da euzkera, batasunik eztaukulako Babel txagarai edo toñie eiten iñardunekin jatzo zana, gauza bat eskatuta oker ulertu: adibidez; Kiputzak «lepua» diñotso Bizkaitařaren «iduneri» guk bařiz «lepue» euren «sorbaldari»; mutilek etoři dediła Euskeltzaindije ta erabagi Euzkel batasunerako «sorbalda (espalda)» «lepue (hombro)» ta idune (cuello).

Ostera «jesaři edo eseri»-ren ordez, askok «jaři» darabile: Euskeltzaindije «jaři» (colocar) ixan dediła.

Ganera «eragon» batzuk (murmurar) bestetzuk (ocuparse) onetarako baidagoz «jardun ta ekin» beraz (murmurar) ixan deila ta kitu.

«Gaur (esta noche) ta» egun (hoy) diñue Laburdi' tařek: Euskeltzaindije, zegaiti geyago dauke Laburdi' tařek guk «Gaur (hoy) ta» egun (día) esateko baño.

Gibel (dorso) Laburdi'tařek, guk bařiz (higado) Euskeltzaindije, beste ořetarako baidagoz «atze ta oste» ta Laburdi'tařena galazo.

Napartařek «neskatila» (muchacha perdida) diñue, eta guk (doncella) Euskeltzaindije, geurie ba autetsi.

«Garagañila» Bizkaitařentzat (Julio) da, Kipuatzen-  
tzat (Junio); erabagi zengikie Bizkaitařen alde.

Okeřune edo naste au dator antxiņeko euzkotařek  
18 ile eukezalako. ta ile bakotxa iru asteduna; au da  
20 egun, İlargijagaz egunek neurtzen ebezalako: or-  
exegaitik astelenak eukozan 7 egun, astartiak beste 7,  
ta astazkenak 6 baņo ez, Ganera, aste bakotxian  
eukezan «İgandia edo jai eguna» «Eguastena» egur-  
astuteko «Eguena» au da «Egun gurena» berarizko  
jaye, «Barikue edo Ostirala» barauē zaneko, ta «Lar-  
unbata edo Neskegunē» lagun batza ta neskien baz-  
kunetarako.

Napartařek «eřan» diņue, ta guk bařiz «esan» (de-  
cir) adirazoteko; baņa, uste dot agindu zengikiela  
«eřan» dala (decir más alto o fuerte).

Bixitzařtik «Bixi» badator eta jayotzařtik «jayo»,  
bardin erijotzařtik dator «erio» (morir naturalmente);  
beraz «il» jaři (matar) «il da» (suicidarse) ta «erail»  
(asesinar).

Alan be ez nastetiařen «jaso» (levantar) ta «jazo»  
(suceder) «ikusi» (ver) ta «ikuzi» (lavar) azkenengo  
bije jaři gengike «t» bat esanaz «jatzo» ta «ikutzi»  
utsirik «garbitu» (limpiar) eta «isastu» (barrer) adir-  
azoteko.

Baita agindu biar zengikie «i» ta «u» gaz amaitzen  
diran itz gustije «e» ezartia «a»-ren ordez, oguzkera  
gozuague ta ereskitsuague dalako Napargarayen,  
Gipuzkuen, eři batxuetan, eta Bizkayen eři askotan  
itzegin daruen lez; bada «e» «a» baixen euzkeldune,  
ta arau berberakaz darabile Napařek, Kiputzeķ, ta  
Bizkaitařek; Ostantzien euzko sustařetik ezpaletor  
ĥnok asmau, ta ganera nok sartuko eban eři bardinge  
gusti ořeitan?

Olan be «ak» noz dan atzizki bakařa ta noz as-

kaña, ulertzeka ez egotiañen, obetsi biar geunke Laburditañen «ek» askaerako: adibidez, «gixonak eta gixonek»: baña bakaña baldin «ek» bada, orduan «eik» askaerako: adibidez, «onek, ta oneik» «argijek eta argijeik» Bizkaitañen ereduen.

Ganera, itz asko dagozaniñen izkelgijetan gauza bat adirazoteko, oba litzake berezien jartie; ona emen (injertar) esan daruagu «estitu» «mentau» «edadon» «eradon» eta «txertatu»; euretatik bat artu (vacunar) esateko, beste bat (inyectar la medicina) adirazoteko, ta bestiak eztikera berezi batzuen ikurpenerako.

Utsune batzuk be baidaukoz euzkeriek, eta oneik arteztu biar dira edo itz bañijek asmaurik edo «emie» dala ulertzeko «na» ezañirik: esate baterako «loba» «iloba» «abide» «mutikue» edo «neskatue» dala «esantzeka» «abidena» «lobana» jari; ta bardin «usona» «zozona» «emie» ez esatiañen.

«Euzkera laburtue» irakatsi ta zabaltzie biarkun gañantzi aundikue da Euzkeltzaindirentzat «Euzkera batasunerako» iztije ta iztegie baño irakuñi eztabenak, ulertzeka ta ao zabalik geratuten diralako eñijaren euzkera laburtue ikasi ezik; eta esturetan, agintzetan, baita neurtitzetan egokije da benebenetan erabiltie: adibidez, «biogu» (biar dogu) «jaixu» (jan egixu) albot ta ezpot (al badot ta ezpadot) berla (beriala) zate (zarate) yateuf, jatout (jaten dut) eñataut (eñaten dut) itaigu (egiten dugu) damut (damu dut) jun biot (joan biar dot) ikuskot (ikusiko dot) kusegun (ikusiko deza-gun) eta abar...

Erdelzalieki mordolotu deuskuez mendi, auzune, ta eñijen ixenak; au dala ta, naita nai ez arteztu biar dira «Euzkera batasune» euki daikeguntzat. Ona emen, «Desierto» jañita dago Erandijo-Beko geldokijen «Altzaga» ixanik, Udaleko ingijetan eta baseñitañ-



en autuetan dabilen eredu; «Las Arenas» Areatza ixan da; «Las Barrietas» Olabañeta-ren orde; «La Reineta» Lariñeta'ri; «Regato» Mendiefeka ixan danari... eta abar...

Oraintsu luneurkarijek jañ deustie Lumoko mendi bateri (Gernikañen eruz) burdin lauki batien «Axafota» «Kosnoaga» danok ondo dakigun lez, orain arte ixan danari: gure asabek obeto ekijen euzkerie geuk paño, ta «Kosnua» egualako tontoñien «Kosnoaga» jañ eutsen: eurek ez eben biar onetarako «aixafotarik» ezta «erofarik» pe «Bolue» adirazoteko.

Azkenez aditzari (verbo) etxako ukutu biar, ez kiptzenari, ez Bizkaitañenari, ezta Laburditañenai be, ondo dagoz ta, baldin biar bada, zerbait atondu ta oráztu baño ez. Au dala ta «jan dot» da (he comido ahora) =o= ori da «orain» ek daukon =o= indartsue (intensivo); «jan det» bañiz da (he comido antes) ta =e= ori da «len» ak datakusgune; «jan dut» osterá (he comido hace tiempo) =u= ori da «urun» en dabilgune...: eta abar... Auxegaitik ba esan daruagu «gustijak eta gustijok».

Baña baldin egingo balebe aditz bat Euskeldun gustijentzako Kanpion eta Broussain' en eredu, jakin oker dagozela. 1.º Bizkaiko \*aditza arautuague dala-ko, ta ganera aberatsague, egitamuen, atzizki, ta suñteretan; auxe berau diñue Aizkibel eta Kardaberaz'ek Kiptzek ixan añen; beste orñen beste Kanpion berberak eta Añigarai'ek Napañek ixan añen; bardin Añian-diaga ta Elizalde'k Bizkaitañek badira be, Arana'tar Sabiñeri jañaiturik. 2.º Lagunez lagun Bizkai euzkerie darabilenek, Kiptzenek paño askozaz geyagoz diralako. Zegaitije da, Bidasoa'tik Lezo'raño Napar Garai'ko euzkerie dauke ta Bergarauterki gustijen, Zumañaga, Biñareá, ta Mutriku ixan ezik, Bizkai euzkerie

darabiñelako. Beraz, Kiputz erkijen Bizkayeraz mintzatzen dabenak dira 77, 250 lagun, Oñate, Eibar, ta Bergaeri aundijek dabezalako. Araban Bizkai euzkerie 12,000 lagun eta akats. Bizkayen ostera 155,000 eta akats. Ona bada emen Bizkai euzkerie txapeldun ixateko zijue beren 244,000 lagunekin gitxienez.

2.º Zelan lortuko dan Euzkera batasuna.

---

1.º Izparingijetan, baña gustijetan albada, euzkerazko irakurgai batzuk idatzirik euzkera garbi batasunekuen: baita onetarako Euzkeltzaindijek lortu dagijela Gotzaniaren baimena lekaide ta jauparijek pe idatzi daikeantzat uskurtza ta euzkera aldezko gai egokijek, ezetarako be aitatu barik eriketa (politica) nasterik, eta baldin biar bada Goterkeslieri lenago erakutsirik.

2.º Abesti ereskitsuekaz igari euzkera barik garbija zabaldurik.

3.º Lugin, aiantzaliენტat eta beste ogibidekuentzat, berarizko idatijek euren lanetzaz Euskel batzuneko ereduen eurez zabaldurik.

4.º Antzerkijek euzkeraz egiñik, txaidietako ta xalokijetako iragarki ta idazkunek euzkeraz jaririk,

5.º Txonitzek, bederatziurunek, Agurtza deuna, ta Kistar Ikastije batasuneko euzkera garbijen erabilirik.

## LABURPENA

### 1.º Gaye

1.º ATALA. Izelgijetako itz bardinge nastauk berezi.

- 2.<sup>a</sup> Itz asko diranian gauza baterako, berezi ixakera ta egikera bardingetarako.
- 3.<sup>a</sup> Euzkera utsunek bete itzpañjekaz, edo emie dala adirazoteko «na» ezafi,
- 4.<sup>a</sup> Euzkera laburtuz irakatsi ta zabaldu,
- 5.<sup>a</sup> Mordoġoturiko mendi, auzune ta eñi ixenak arteztu.
- 6.<sup>a</sup> Erabili «a» legez «e» be itzen atzizkitzat.
- 7.<sup>a</sup> Aditza oñaztu bakañik, edo Bizkaikue autetsi.

## II<sup>en</sup> Gaye.

- 1.<sup>o</sup> ATALA. Izpañgijetan idatzi daikeala edozeñek obeto lortzeko Euzkel batasuna.
- 2.<sup>a</sup> Abestijen bitartez zabaldu euzkera garbije.
- 3.<sup>a</sup> Lugin, añantzalientzat idatzi berarizko idaztijek.
- 4.<sup>a</sup> Antzerkijek euzkeraz egin, saloki idazkunekpe bardin.
- 5.<sup>a</sup> Txonitzak, bederatziurunek, Agurtza Deuna ta Kistar Ikastije Euzkel batazuneko ereduen egin.

### Aztirik balego uañpen bat Euzkeltzaindiri.

Euzkerarik eztakigulako biar dan beste, eta ganera ixen oker batzuk daukoguzelako, irapañan itz batek gauza bat dikur, eta Gipuzkuen beste bat, Bizkayen be ostera beste bat, auxegaitik uste dot ixen gustijen azterketie ein biar geunkela: Adibidez, Sein (infante) bada «Senar» (seinxar) (infante varon) beraz «hijo» ta ez (marido) oñetarako baidago «ezkona» ta. Bardin «Seme» (sein×eme) (hija) ta ez «alaba» ori (al×aba) (amo poderoso) dalako; antxinez ba iru agintari baño ezeguelako, «aita» «etxekue» «ugazaba» langilena, ta

«alaba» efi guztikue. «Emazte» bañiz (esposa) «emazte» (mujer criando) beraz «ema» da (mujer) ta eze-lan be ez «Emakume» (mujerzuela) «baño» aztakume, txakurme ta katakumeren gizan. Ona bada emen Ba-bel txagaraiko nastie: Euzkeldunek «Ama» (madre) Tagalotañek (Manila ugartekue) (padre) guk «anai» (hermano) eurek bañiz (nanai=madre) guk «andrea» (Señora) gerkañek (hombre) guk «Senar» orain (ma-rido) len (hijo) Txiña'nek (engendrar varon) aztertu ta oñaztu daigun ba lenbailen lortzeko «Euzkel batazu-ne».

AYENGIZ'TAR IÑAKI ABA TXOTIÑODUNA.

---